

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**UPV/EHU<sub>n</sub> IKERTZAILEAK PRESTATZEKO  
KONTRATAZIO DEIALDIA  
2022**



## ATARIKOA

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak (aurrerantzean, UPV/EHU), Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko ikerkuntza gunerik handiena izaki, eskuordetuta du unibertsitateko pertsonal titulatuak ikerkuntzan prestatzeko eginkizuna eta, hori dela eta, doktorego tesien laborazioa sustatzen du; horrexetarako, doktorego aurreko pertsonal ikertzailearen kontratazioa helburu duen honako laguntza deialdi hau argitaratzen duelarik.

Egungo gizartean ezinbestekoak dira doktoreak, bai testuinguru produktiboan bai sozialean. Unibertsitateak doktoreak hezi behar ditu eta ahaleginak egin behar du prestakuntza hori, jakintzan eta berrikuntzan aurrera doan gizarteari egoki dakion, gizartean bertan emakume eta gizonen jakintza, batzuen eta besteen eskubide, erantzukizun eta aukeren berdintasunean txertatuz. Doktoregoko ikasketek, karrera akademiko bat egiteko prestatzeaz gain, enpresa, erakunde eta instituzio berritzaileetan langile gaituak sartzeko aukera ematen dute.

UPV/EHUn sortzen da EAEn sortzen den unibertsitate mailako euskarazko ekoizpen zientifiko gehiena. Euskara bezalako hizkuntza baterako, oraindik ere zeharo estandarizatuta ez dagoelarik, ezinbestekoa da ikertzaileen lan eta ekarpena euskaraz egin eta zabal dezatela. Euskararen arloko Errektoreordetzak arlo hau bultzatu nahi izan du azken urteotan eta, horretarako, laguntzak eman dizkie doktoregai elebidunei doktorego tesiak euskaraz egin ditzaten. Hortaz, UPV/EHUn Euskararen III. plan gidarian (2018-2022), Gobernu Kontseiluak 2018ko abenduaren 20an onetsitakoan, helburu gisa hartzen da euskarazko doktorego tesien kopuru osoa gehitzea. Honez gainera, plan gidari berri honetan, bermatu nahi da euskarazko komunikazio akademikoaren kalitatea ikerkuntzaren alorrean eta, horretarako, prestakuntza espezifikoa eskainiko zaio prestakuntzan ari den ikertzaile kontratatuei.

Halaber, UPV/EHUK, 2014ko azaroaren 19an esparru hitzarmen bat egin zuen Bordeleko unibertsitatearekin proiektuan integratutako unibertsitateekin Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campusa eratzeko, zein bere bikaintasun proiektuen testuinguruan, Euskampus eta IdEx Bordeaux, hurrenez hurren. Esparru hitzarmen hori berritua izan da 2018ko azaroaren 30ean eta luzatu beste lau urtetarako. Euroeskualdeko Campusaren helburua mugaz gaindiko sare bat osatzea da, nazioartean eragina izango duena eta ardatz atlantikoaren erreferentzia bilakatuko dena hala jakintzaren sorrerari nola gaitasun zientifiko eta teknologikoei dagokienez, eta hori jakintzaren balio kate osoan: ideien sorreratik hasi eta ideioek gizartearentzako onura bilakatu arte.

Oinarrizko hitzarmenak xede hauek ditu, besteak beste: sinatzaileen arteko lankidetzak akademikoak, gradu eta masterreko titulazioak eta etengabeko prestakuntzako ikasketak elkarrekin emateko, erakunde bietan aitorpena izango dutenak kredituetan; ikerketa proiektuak egitea lankidetzan; eta doktorego tesiak tutorekidetzan zuzentzea.

Azkenik, Paueko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatearen eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen artean sinatutako lankidetzarako esparru hitzarmenaren baitan, doktorego aurreko kontratuak egiteko deialdi publikoa sartu da, doktorego tesiak tutorekidetzaren erregimenean egiteko.

Honako deialdi hau, hortaz, batera aurkezten dute Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean IAE), Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak eta Bordeleko unibertsitatearekiko eta UPPArekiko lankidetzaren barruan, proiektuan integratutako unibertsitateek, lau modalitatetan egituratuta, deialdiaren 2. oinarrian adierazi bezala.

I, III eta IV modalitateen finantzaketa EIBk ematen du, 4.640.000 eurotako zenbatekoarekin, dagokion aurrekontu kredituaren arabera. Kreditu hori Eusko Jaurlaritzarekin 2023-2026 aldirako formalizatuko den etorkizuneko programa kontratuaren finantzaketaren arabera ezarriko da. Adierazitako zenbatekoa urtero erabilgarri dagoen aurrekontuaren arabera handitu ahal izango da.

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak emango du II. modalitatearen finantzaketa, 600.000 eurotako zenbatekoarekin, dagokion aurrekontu kredituaren arabera. Kreditu hori Eusko Jaurlaritzarekin 2023-2026 aldirako formalizatuko den programa kontratuaren ondoriozko finantzaketaren arabera ezarriko da. Adierazitako zenbatekoa urtero erabilgarri dagoen aurrekontuaren arabera handitu ahal izango da.

Errektoreordetza biok konprometitutako finantzaketaz ordainduko dira errektoreordetza bi horiek lehenago burututako deialdien bidez emandako laguntzei legozkiekeen urteko ordainketak eta doktorego osteko kontratu berrien lehenengo urteko ordainketak.

Horretara, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza batzordearen (aurrerantzean IGBB) aldeko txostena jaso ostean eta gobernu kontseiluak onetsi ondoren, IAEK eta Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzak erabaki dute subentzioak emateko honako deialdi hau argitaratzea, ondoren zehaztuko diren baldintzetan.

## 1. oinarria. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdiaren xedea da unibertsitateko tituludunak UPV/EHUn doktorego programetan prestatzea, baita ezagutza zientifikoaren edozein arlotako doktorego tesiak egitea ere, doktorego aurreko kontratuaren bidez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

## 2. oinarria. DEIALDIAREN MODALITATEAK

2.1. Deialdiak lau modalitate hartzen ditu:

- **I. modalitatea:** doktorego aurreko prestakuntzan ari diren ikertzaileen kontratazioa.
- **II. modalitatea:** Prestakuntza bidean dauden doktorego aurreko ikertzaileen kontratazioa, doktorego tesia euskaraz egiteko.
- **III. modalitatea:** Kontratazio deialdia, ikertzaileak UPV/EHUn prestatzeko UPV/EHUn eta Bordeleko unibertsitatearen arteko tutorekidetzan.
- **IV. modalitatea:** Kontratazio deialdia, ikertzaileak UPV/EHUn prestatzeko UPV/EHUn eta UPPAren arteko tutorekidetzan.

2.2. Hautagai bakoitzak eskari bakar bat egin ahal izango du, I eta II. modalitateak hautatuz eta nork bere interesaren arabera lehenetsiz, edo III. zein IV. modalitateetako bat. III. eta IV. modalitateak bateraezina dira elkarren artean eta I eta II. modalitateekin. Beren arteko bateraezintasunik dute modalitateak hautatuz gero, horietako bakar bat aukeratu beharko da akatsak zuzentzeko fasean.

2.3 Modalitateen hautaketa eta lehenespena ezin izango da aldatu, eskaria aurkeztu ondoren.

## 3. oinarria. ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK

3.1. Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileek ondoren zerrendatzen diren baldintza guztiak bete behar dituzte **eskaria aurkezten denean**:

3.1.a. Honako baldintza hauetakoren bat bete:

- i. **Doktoregora sartzeko bide ematen duen unibertsitate tituluaren jabe izan, 2019ko urtarrilaren 1etik aitzina** lortuta, data hori barne.  
Salbuespenez, doktoregorako sarbidea ematen duen titulazioaren aldi baterako baldintza honen betetzetik salbuetsi ahal izango da baldin eta % 33ko desgaitasuna edo handiagoa frogatzen bada eta proposatutako ikerketa proiektuan egin beharreko lanarekin bateragarria dela egiaztatzen bada. IGBBK salbuespenezko inguruabarrak baloratuko ditu eta erabakiko du, hala badagokio, eskabidea deialdian onartu behar den. Nolanahi ere, deialdian parte hartzeko salbuespen egoera behin baino ez da onartuko.
- ii. **Doktoregoa eskuratzeko aukera ematen duen unibertsitate titulua izan, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera** (egun hori barne) lortu bada, eta semea edo alaba jaiotza izana edo semea edo alaba zaindu izana egiaztatzea, adopzio kasuetan edo adopzio helburuko zaintzaren edo harrera iraunkorraren kasuetan, betiere jaiotza data edo, hala badagokio, ebazpen judizial edo administratiboaren data 2016ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) gertatu bada.
- iii. Unibertsitate tituludunen kasuan, osasun prestakuntza espezializaturako plazak lortzera bideratutako prestakuntza plaza lortua badute, osasun zientzien espezialitateetako titulu ofiziala lortzera bideratutako prestakuntza programa batean, gutxien dela, bi urte balorazio positiboaz gainditu badute eta bi prestakuntza urte horien amaiera **2019ko urtarrilaren 1etik aitzina bada, data hori ere barne**.
- iv. **Doktoregora sarbidea ematen duen titulu baten azken ikastaroan aritzea.** Pertsona hauek epe gehigarri bat izango dute **2022ko urriaren 31ra arte, egun hori barne**, espediente akademiko osoa

aurkeztuko badute. Espedientea deialdi honen 6. oinarrian deskribatutako edozein bitarteko erabilita aurkeztuko ahal da.

Doktoregoko ikasketa ofizialak arautzen dituen urtarrilaren 28ko 99/2011 errege dekretuak 6. artikuluan zehazten ditu doktorego programak bete behar dituen baldintzak, hots:

1. *Oro har, doktorego programa ofizial batera sartu ahal izateko, gradu edo pareko ikasketen titulu ofizialaren eta unibertsitate master edo pareko titulu ofizialaren jabe izan behar da, betiere, bi ikasketa horietan, guztira, gutxienez 300 ECTS gaindituta badituzu.*

2. *Programan sar daitezke, era berean, kasu hauetako batean daudenak:*

a) *Espainiako unibertsitate titulu ofizial baten jabe izatea, edo Europako Goi Hezkuntzaren Eremuko beste herri batekoa, baldin eta, urriaren 29ko 1393/2007 EDko 16. artikulua ezarritakoarekin bat etorrira, masterrean parte hartzeko gaitzen badu. Eta gaindituak izatea, gutxienez, 300 kreditu ECTS, unibertsitate titulu ofizial guztiak kontuan hartuta, eta horietatik 60, gutxienez, master mailakoak izango dira.*

b) *Espainiako gradudun titulu ofizial bat izatea, eta haren iraupena, zuzenbide komunitarioko arauak betez, 300 kreditu ECTSkoa izatea, gutxienez.*

3.1.b. **Datei dagokienean, aintzat hartuko da doktoregorako sarbidea ematen duen lehenengo titulazioa noiz lortu den.**

3.1.c. I eta II. modalitateetarako, **6,5 puntutako** batezbestekoa behar da izan lizentziatura edo gradu espediente akademikoan.

Espediente akademikoak 1 eta 10 arteko batez besteko nota jasoko ez balu, espediente akademikoaren batez bestekoa kalkulatu egingo da irakasgai bakoitzean lortutako zenbakizko kalifikazioa biderkatuz irakasgai bakoitzaren kreditu kopuruarengatik eta lortutako produktu guztiak batu eta kalifikazioaz gainditutako kredituen guztirako kopuruarengatik zatituz. Plan ez berrituen kasuan, batez besteko nota kalkulatzeko lortutako kalifikazioen batura zatituko da gainditutako irakasgaien kopuru osoarengatik.

Espedientearen batez bestekoa kalkulatzeko, balioetsi edo egokitu ez dituen unibertsitateak kalifikatu ez dituen baliokidetu edo egokitutako irakasgaien kasuan, jatorrizko ikasketetan edo ikastegian lortutako kalifikazioak konputatuko dira, baldin eta dokumentalki egiaztatu ahal bada. Dokumentalki egiaztatu ezin balira, nahiko kalifikazioaz gainditu direla ulertuko da.

Era berean, espedientearen batez besteko kalkuluari dagokionean, ez dira aintzat hartuko beste espezialitateetako irakasgaietan lortutako notak, ez eta masterreko ikasketetan ere.

Ikasketak atzerrian egin dituzten eskatzaileen kasuan, ANECAren ziurtagiri ofizialean agertzen den espediente akademikoaren batez bestekoa hartuko zaie aintzat.

3.1.d. **Doktore tituluaren jabe ez izatea.**

3.1.e. II. modalitatearen kasuan, egiaztatu euskararen jakite mailaren C1 maila ziurtatua edo doktorego programarako bidea ematen duen titulazioa euskaraz egin izana.

Aurreko **baldintza guztiak** betetzen ez dituzten edo legezko epean eta eran egiaztatzen ez dituztenak hautaketa prozesutik at geratuko dira.

3.2. **Eskatzaileek baldintza guztiak beteta izan beharko dituzte kontratua sinatzerakoan:**

3.2.a. **Europar Batasuneko herritarrak ez diren pertsonen kasuan, Espainian lan egiteko aurretiazko administrazio baimena izatea**, ekintzaileei eta haien nazioartekotzeari laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legean xedatutakoaren arabera.

3.2.b. **Eskabidean agertzen diren tesi zuzendarikideekin batera UPV/EHUko doktorego programan matrikulatuta egotea**. Halakorik ziurtatu ez izanak laguntza ez ematea dakar berarekin. Eskatzailearen ardura izango da aipatutako programan sartu eta onartzeko eskaria egitea, doktorego eskolak horretarako adierazitako epeetan eta forman.

3.2.c. **III. modalitateetarako, Bordeleko unibertsitatearen doktorego programa batean matrikulatuta egon, eskarian jaso beharko dena bertan adierazitako tesi zuzendarikideekin batera**. Halakorik ziurtatu ez izanak laguntza ez ematea dakar berarekin. Eskatzailearen ardura izango da aipatutako programan sartu eta onartzeko eskaria egitea, horretarako epean eta forman.

3.2.d. **IV. modalitaterako, UPPA unibertsitatearen doktorego programa batean matrikulatuta egon, eskarian jaso beharko dena bertan adierazitako tesi zuzendarikideekin batera.** Halakorik ziurtatu ez izanak laguntza ez ematea dakar berarekin. Eskatzailearen ardura izango da aipatutako programan sartu eta onartzeko eskaria egitea, horretarako epean eta forman.

#### 4. oinarria. TESI ZUZENDARI KIDEEN BALDINTZAK

4.1. Eskari bakoitzak tesi zuzendari-kide bat edo biren bermea izan beharko du, zer modalitate hautatzen den:

- a. **I eta II. modalitateak:** Gehien dela, tesi zuzendari kide bi izan ahal dituzte, 4.2. oinarriko baldintzak bete behar dituztenak.
- b. **III. modalitatea:** Eskariek **nahitaez** izango dute UPV/EHUko zuzendari kide bat eta beste zuzendari-kideak Bordeleko unibertsitatekoa beharko du izan. UPV/EHUko tesi zuzendari-kideak 4.2. oinarriko baldintzak bete beharko ditu. UPV/EHUko dagokion batzordeak (doktorego programako batzorde akademikoa eta, hala badagokio, graduondoko batzordea) onartu beharko du Bordeleko Unibertsitateko tesi zuzendarikidea tesi zuzendarikide gisa. Tramite honi laguntza ematerakoan ekin ahal izango zaio.
- c. **IV. modalitatea:** Eskariek **nahitaez** izango dute UPV/EHUko zuzendari kide bat eta beste zuzendari-kideak UPPAkoa beharko du izan. UPV/EHUko tesi zuzendari-kideak 4.2. oinarriko baldintzak bete beharko ditu. UPPAko dagokion batzordeak (doktorego programako batzorde akademikoa eta, hala badagokio, graduondoko batzordea) onartu beharko du Bordeleko Unibertsitateko tesi zuzendarikidea tesi zuzendarikide gisa. Tramite honi laguntza ematerakoan ekin ahal izango zaio.

4.2. Tesi zuzendari-kideek ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte **eskaria egiten denean**. Eskatutako baldintza guztiak betetzen ez dituzten edo legezko epean eta eran egiaztatzen ez dituzten zuzendarikideen eskariak hautaketa prozesutik at geratuko dira.

- a. **Gutxienez zuzendarikideetako batek UPV/EHUren doktorego programako irakasleetako bat izan beharko du, edo doktorego programako batzorde akademikoaren ziurtagiria izan beharko du doktorego programako irakasleetan parte hartu ahal izateko ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko, eta eskatzaileari beka emanaz gero, programan onartuko da. Dagokion batzordeak osatu beharko du izapidea, 30 egun naturalen epean, deialdiaren behin-behineko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.**

Eskatzaileek egiaztatu ahal izango dute proposatutako zuzendari-kideak beraien hautatutako doktorego programan ari diren honako esteka honetan:

<https://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/doktorego-eskaintza>

- b. Beste zuzendarikidea eskabidea aurkezteko unean Programako irakasleen artean ez badago, Doktorego Programako Batzorde Akademikoak onartu beharko du tesi zuzendari gisa, 30 egun naturalen epean, deialdiaren behin-behineko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. IAEk ofizioaz gainbegiratu du baldintza honen betetzen den eta, ezezkoan, eskaria bertan behera utzi ahal izango da. Tramite hau egiteko jarraibideak esteka honetan kontsulta daitezke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/ordenacion.academica/programatik-kanpoko-irakasleen-tesi-zuzendarikidetza1>

- c. Tesi zuzendarietako batek gutxienez izan beharko du UPV/EHUrekiko lotura funtzionarial zein lan edo kontratu lotura, eskaria agertzeko unetik eta laguntza gauzatzeko tarte edo epe osoan zehar.
- d. **Tesi zuzendariak ezin emango dio abala deialdi honetako I eta II. modalitateetan eskari bati baino gehiagori.** Baldintza hau antzemanik, eskatzaileari, 8.2 oinarrian eskariak zuzentzeko aurreikusitako epearen barruan, 10 egunen epea emango zaio tesi zuzendari berri bat proposa dezan, deialdian eskaturiko baldintza guztiak eskaria egiterakoan beteko dituen zuzendaria.

Eskatzaileak lehengo tesi zuzendari-kidea agertuko luketen dokumentu guztiak eguneratu eta aurkeztu beharko ditu, behin betiko zuzendari-kidearen datuak jasota.

Baldintzak betetzen ez dituen bigarren tesi zuzendarikidea proposatuz gero, ezin izango da zuzendu, eskaria baztertzeko zioa izanik.

## 5. oinarria. KONTRATUEN EZAUGARRIAK:

5.1. Honako kontratu kopuru hauek sartzen dira deialdi honetan:

- a. I. modalitatea: gehienez, 50 kontratu emango dira.
- b. II. modalitatea: gehienez, 7 kontratu emango dira.
- c. III. modalitatea: gehienez, 5 kontratu emango dira.
- d. IV. modalitatea: gehienez, 3 kontratu emango dira.

Aurreikusi diren laguntzen kopurua aldatu ahal izango da emateko erabakian, aurrekontu baliabideen arabera eta laguntzen iraunaldi aldakorren arabera. Nolanahi ere, laguntza guztietatik, gutxienez 3 gordeko dira, % 33ko edo gehiagoko desgaitasun maila dutela egiaztatzen duten pertsonentzat, baldin eta tesi zuzendariaren txosten baten bidez egiaztatzen badute 1. oinarrian ezarritako egin beharreko lanarekin bateragarria dela. Egiaztigiri hau, aurkeztu beharreko hasierako dokumentazioaren barruan aurkeztu behar da eskabidearekin batera.

Laguntzak ikerkuntzaren arlo guztietara daude irekita, eta lau modalitateetan eskainitako laguntza guztietatik gutxienez 5 kontratu gordetzen dira zientziaren 5 arloetako bakoitzerako (Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, Arteak eta Giza Zientziak). Erreserbatutako 5 laguntzetatik hiru zuzenean emango dira, baldin eta ebaluazio irizpideen arabera eskatutako gutxieneko puntuazioa gainditzen badute (8. oinarria). Erreserbatutako beste bi laguntzak (laugarrena eta bosgarrena) esleitzeko, 8. oinarrian eskatzen den gutxieneko puntuazioa ere gainditu beharko dute, eta, gainera, gutxieneko hori gainditzen duten eskaeren % 10 gutxienez egon beharko dira dagokion ikerketa arloan.

Gainerako laguntzak ebaluazioan lortutako puntuazioaren arabera emango dira, zientziaren arloa edozein dela ere, eta eskatutako modalitatearen arabera estratifikatuta.

5.2. Eskainiko den lan-kontratua ZTBren 21. artikulua arautuko du. Kontratutako langileak prestakuntzan dauden doktorego aurreko langile ikertzailetzat hartuko dira.

5.3. Kontratutakoa, beraz, UPV/EHUren sail, institutu edo guneren bati atxikiko zaio, doktorego tesia bertan egingo duelarik.

5.4. Kontratua arduraldi osokoa izango da eta urtebetetik gora iraunen du. Era berean, kontratua ezin joan daiteke lau urtetatik gora. Luzapena urtero egingo da, interesatuak doktorego programan dirauen bitartean.

Kontratua % 33ren minusbalioetasuna edo goragoko pertsona batekin sinatu bada, balioetsiko da kontratua gehiago luzatzeko aukera, kontratatutako pertsona doktoregoko prestakuntzarako eperik luzeena arduraldi osoan agortu arte.

Kasu guztietan oro, kontratuaren aurrerantzeko luzapenak aurrekontu erabilgarria edukitzearen menpe egongo dira.

Doktorego programan urtero matrikula formalizatzea eta eskabidean adierazitako tesi zuzendariaren aldeko txostena ezinbestekoa izango da kontratua luzatzeko. **Ez da programa aldaketarik onartuko luzapena egiteko.**

5.5. UPV/EHUK ezin izango du inor kontratatu mota honetako kontratuen bidez lau urtetatik gora, beti ere zenbatuta beste erakunderen batean kontratu modalitate honen bidez izandako aldia, salbu eta 5.4. oinarriaren 2. paragrafoan aurreikusitakoa.

5.6. Aldi baterako lanerako ezintasunak, haurdunaldiko arrisku egoerak, amatasunak, umeen adopzioa edo harrerak, edoskitzaroko arrisku egoerak eta aitatasunak gelditu egingo dute epearen zenbaketa kontratuaren iraupenari dagokionez.

5.7. Ikerketaren arloko errektoreordeak eten ahal izango dio beka interesatuari sei hilabetez gehienez ere, bekadunak horretarako eskari arrazoitua eginez gero. Hori eginez gero, etenaldi hori ezingo da berreskuratu eta laguntza ebazpenean ezarritako epean amaituko da. Laguntzaren etenaldian zehar baja emango da Gizarte Segurantzari. Etenaldiaren ondoren laguntza berriz jasotzeko izapideak egin ezean, bekari uko egin zaiola ulertuko da eta kontratuaren behin betiko amaiera eragin lezake.

5.8. Deialdi honetarako formalizatzen diren kontratuen ordainsaria Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legearen 21. artikulua eta prestatzen ari diren doktorego aurreko ikertzaileen estatutua onartzen duen martxoaren 1eko 103/2019 Errege Dekretuak arautuko dute.

5.9. Deialdi honen bidez aukeratutakoek ez dute UPV/EHUREkin lan kontratu harreman egonkorrik izango eta aldi baterako kontratu harreman hori kontratuaren iraupenari dagokion aldia igarotakoan amaituko da edo 18. oinarrian ezarritako beste edozein arrazoi gertatzerakoan.

## 6. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

6.1. **Aurkezteko tokia.** Eskaerak UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeari bidaliko zaizkio. UPV/EHUREn Egoitza Elektronikoaren bidez aurkeztu ahal izango dira. UPV/EHUREn Egoitza Elektronikoan dagoen Erregistro Elektronikoaren bidez, UPV/EHUREn erregistro bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua..

Erregistro elektronikoa erabiliz gero (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>), "Norako" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta, bigarrenik, **"Ikerketa Deialdien Kudeaketa (U02000256)"**, eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: **"PBI/PIF 2022"**.

Esteka honetan kontsultatu ahal izango dira UPV/EHUREn erregistro bulegoen helbideak eta jendaurreko ordutegiak: <https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia>

Posta bulegoak erabiliz gero, dokumentazioa gutun azal irekian aurkeztuko da, posta langileek eskabidearen lehenengo orria erregistra dezaten, eta posta ziurtatuz bidaliko da honako helbide honetara:

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea  
Ikerketaren arloko Errektoreordetza  
Ikerketako Deialdien Atala  
Errektoretzaren eraikina  
Sarriena Auzoa, z/g  
48940 Leioa (Bizkaia)

Eskabidea UPV/EHUko erregistro bulegoetan edo posta bulego batean aurkeztu bada paperean, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein bide erabiliz, dokumentazio osoa posta elektronikoz bidali beharko da [igz.pif-eskaerak@ehu.eus](mailto:igz.pif-eskaerak@ehu.eus) helbide elektronikora eskaera aurkezteko epearen barruan. Posta mezuan "gaia" atalean agertu beharko dira: "PBI/PIF 2022" eta eskatzailearen IZEN-DEITURAK. Deialdian ezarritako dokumentazioa eranstea, behar adina mezua bidali ahal izango dira eta horietan guztietan "gaia" atalean adierazitako informazioa adierazi beharko da (kontuan izan UPV/EHUko mezuaren gehieneko edukiera 10 MB-takoa dela; beraz, bidalitako dokumentazioak gehiago hartzen badu, mezua ez da jasoko).

### 6.2. Beharrezko dokumentazioa:

- a. **Eskaria, Ikerketaren arloko webgunean** eskura daitekeen eredia erabiliz.

Dokumentu hori eskaeraren osagaitzat eta gutxieneko edukizat hartuko da, eta, beraz, eskatzaileak ezin izango du hura aldatu aurkeztu ondoren. Berori epean eta forman aurkeztu ezean, deialditik atuzteko arrazoia izango da.

Edozein delarik hautatu nahi den modalitatea, eskabide inprimakian nahitaez bete beharko da doktorego tesirako ikerketa proiektua edukitzen duen GIHari dagokion atala. GIHen katalogoa deialdi honen I. ERANSKINEAN dago jasota. Atal hori betetzen ez bada, edo gaizki betetzen bada, eskabidea zuzendu beharko da.

Eskabidea EAEko hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da, euskaraz eta gaztelaniaz, bai eta ingelesez ere, aukeratutako modalitatea edozein dela ere.

- b. **NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia** PDF formatuan.

- c. **Doktoregora sarbide ematen duen titulazio edo titulazioetako ziurtagiri akademiko pertsonala, non lortutako kalifikazio guztiak eta horiei dagozkien datak agertzen diren.** Ziurtagiriak agertu behar du eginiko irakasgai eta kredituek osatzen dutela titulazio osoa. Kasuan kasuko ikasketak UPV/EHUn egin dituzten eskatzaileek ez dute dokumentu hau agertu beharrik.

3.1.a oinarrian adierazitako salbuespenetako bat hartzen duten eskatzaileek, gainera, **% 33ko desgaitasun maila edo handiagoa egiaztatzen duen ziurtagiriaren kopia** aurkeztu beharko dute, kasuaren arabera, **bai eta tesiaren zuzendariaren txostena ere, garatu beharreko lanarekin bateragarria dela egiaztatzen duena (3.1.a.i), espezialitatearen tituluaren kopia**

**edo horren ziurtagiri ofiziala (3.1.a.iii), edo zaintzaren hiru urteko Liburuaren fotokopia, 3.1.a.ii).**

*Atzerrian zatika edo osorik egindako ikasketen kasuan, gainera atzerrian egindako unibertsitate titulazioen batez besteko nota baliokidearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, Hezkuntza eta Lanbide Hezkuntzako ministerioak emana. Agiri hau ondoko esteka honen bidez eskura daiteke:*

<https://sede.educacion.gob.es/sede/login/inicio.jjsp?idConvocatoria=818>

- d. ***Ikertzaile eskatzailearen curriculuma PDF formatuan.*** Dokumentu hau curriculum vitae arautuaren (CVA) formatuaz aurkeztuko da. Eskatzaileek online editatu ahal izango dute <https://cvn.fecyt.es/editor/> estekari klik eginez. Aplikazio honen funtzionamendu honi buruzko kontsulta teknikoak [cau.editor.cvn@fecyt.es](mailto:cau.editor.cvn@fecyt.es) helbidera bidali beharko dira.
- Eskatzailearen CVA ingelesez idatzita egongo da, eskabidean aukeratutako modalitatea edozein dela ere.
- e. Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako kupoaren bidez sartzen diren pertsonen, % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, bai eta zuzendari zientifikoaren txostena ere, 1. oinarrian ezarritako egin beharreko lanarekin bateragarria dela ziurtatzen duena.
- f. ***I. eta II. modalitateetan, hizkuntza ez ofizialen jakite maila egiaztatzeko ziurtagiria (B2, C1 edo C2 mailak besterik ez).*** Eskariak aurkezteko azken egunera arte lortutako ziurtagiriak besterik ez da onartuko.
- g. ***I. modalitatean, Euskararen jakite maila egiaztatzeko ziurtagiria (B2, C1 edo C2 mailak besterik ez).*** Eskariak aurkezteko azken egunera arte lortutako ziurtagiriak besterik ez da onartuko. Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 dekretuak eragindako baliokidetzen kasuan, eskatzaileak dagokion ziurtagiria ere aurkeztu beharko du. Eskaria egiterakoan titulazioa euskaraz amaitzen ari bada, epe gehigarria egongo da **2022ko irailaren 30era arte, barne**, ikasketen ziurtagiria aurkeztu ahal izateko.
- h. ***II. modalitatean, dokumentu batean jasoko dira eskatzaileak euskararen inguruan alegatzen dituen merezimenduak eta merezimenduen egiaztatzeko (C2, euskarazko GRAL edo/eta MAL).***
- i. ***II. modalitatearen kasuan, dokumentu batean jasoko dira zuzendari-kideek euskararekiko alegatutako merezimenduak*** (C1 edo C2, tesiak euskaraz zuzentzea, euskarazko ekoizpen zientifikoa).
- j. ***Nazionalitate frantsesa duten eskatzaileen gaztelaniaren edo euskararen jakite mailaren ziurtagiria edo nazionalitate espainiarra duten eskatzaileen frantsesaren jakite mailarena (B1-etik C2ra bitartekoak besterik ez).*** Beste nazionalitate batzuetako eskatzaileen kasuan, gaztelaniaren edo euskararen eta frantsesaren jakite mailaren egiaztatzeko ziurtagiria. Eskariak aurkezteko azken egunera arte lortutako ziurtagiriak besterik ez da onartuko.
- k. ***I. eta II. modalitateetan, zuzendarikideen merezimenduei buruzko erantzukizunpeko adierazpena, 7.1 oinarrian, 7. irizpidean jasoa, IAEren web-orrian*** eskuragarri dagoen ereduaren arabera.

**Atal honetan eskaturiko dokumentazioa besterik ez da baliotsiko atal honetan. Beraz, ez da dokumentazio gehiagorik aurkeztu beharrik izango, eskatzaileen merezimenduak egiaztatzeko.**

6.3. **Eskarien ebaluazioa.** Ebaluatzaileak euskaldunak ez badira, IAE arduratuko da euskaraz aurkeztutako eskabideak gaztelaniara edo ingelesera itzultzeaz. Itzulpena jasotakoan, posta elektronikoz bidaliko zaio eskatzaileari, eskabidean adierazitako posta kontuaren bidez, eta hark bost egun balioduneko epea izango du hura berrikusi eta adostasuna emateko. Epe hau kontatzeko, aintzat hartuko da postaren gestoreak mezu elektronikoa ematerakoan emititzen duen egiaztatzeko ziurtagiria. Epe hori iraganik, ulertuko da eskatzailea ados dagoela itzulpenarekin.

6.4. **Eskariak aurkezteko epea.** Eskariak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, honako deialdi hau lkerkuntzaren arloko errektoreordetzaren web gunean argitaratuko denetik kontatzen hasita.



## 7. oinarria. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

7.1. Deialdiaren I. eta II. modalitateari dagokin esleipenerako, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat:

Irizpideak	Zer modalitatean aplikatu	Puntuak gehien jota
1. Espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (masterra kontuan hartu gabe)(a)(b)	I-II	50 puntu
2. Ikerketa proiektuaren interes zientifikoa eta kalitatea, horren finantzaketa egokia barne (c)	I-II	30 puntu
3. Eskatzailearen curriculum (c)	I-II	5 puntu
4. Hizkuntzak jakitea (d)	I-II	5 puntu
5. Euskara maila (d)	I	5 puntu
6. Euskararen arloan egindako ekarpenak (e).	II	5 puntu
7. <b>Tesi zuzendari bi</b> egotea, hauetariko bat, gutxien dela, UPVEHUko pertsonala izanik, defendatu den doktorego tesi bat baino gehiago zuzendu ez duena.	I-II	5 puntu
<b>GUZTIRA:</b>		100

Modalitate bakoitzeko merezimenduen batura, gehienez, 100 puntutakoa izango da.

7.2. Deialdiaren III eta IV. modalitateari dagokien esleipenerako, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat:

Irizpideak	Puntuak gehien jota
1. Espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (masterra kontuan hartu gabe)(a)(b)	50 puntu
2. Ikerketa proiektuaren interes zientifikoa eta kalitatea, <b>horren finantzaketa egokia barne</b> (c)	30 puntu
3. Eskatzailearen curriculum (c)	10 puntu
4. Frantses maila nazionalitate espainiarra duten eskatzaileei edo euskara edo gaztelaniaren maila nazionalitate frantsesa duten eskatzaileei. Beste nazionalitateetako pertsonak gaztelania edo euskara eta frantsesa badakitela egiaztatu beharko dute, merezimendua konputatu ahal izateko. (f)	10 puntu
<b>GUZTIRA:</b>	100

### 7.3. Ebaluazio irizpideak azaltzeko oharra

**(a) Oharra:** Espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (balorazio irizpideen lehenengo atala) eskatzaileak egindako titulazioaren arabera normalizatuko da, aurreko ikasturteetan UPV/EHU titulazio hori egin duten ikasleen batez besteko notak erabiliz.

Eskaerako titulazioa ez badago UPV/EHU, edo titulazio horri dagozkion batez besteko noten kopurua ez bada adierazgarria, aurreko ikasturteetan UPV/EHUko titulazioetan lortu diren batez besteko notak erabiliko dira normalizaziorako.

UPV/EHU emandako titulazioen batez besteko notak erabiliko dira 2017/18, 2018/19, 2019/20 eta 2020/21 ikasturteetan ikasketak amaitu zituzten ikasle guztientzat kalkulaturik. Nota horiek deialdiaren II. eranskinean daude jasota.

**(b) Oharra:** Espainiako unibertsitate sistematik at lortutako espedienteen kasuan, aipatu berri den 1. Irizpidea balioesteko Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatze Agentzia Nazionalak (ANECA) atzerrian egindako unibertsitate ikasketen batez besteko nota baliokideak kalkulatzeko zerbitzuaren bidez esleitutako balioa aplikatuko da, baldin eta baliokidetzak hori beharrezkoa bada lehiaketa prozesu batean aurkeztu ahal izateko.

ANECAn emandako ziurtagiria deialdiaren 6. oinarrian adierazitako gainerako dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko da.

**Ziurtagiri hori aurkeztu ezean, 1. irizpideari dagokionean 10 puntu esleitu dira.**

**(c) Oharra:** 7.1, 7.2 eta 7.3 oinarrien 2 eta 3 irizpideak, kanpoko prozesu baten bidez balioetsiko dira Ikerkuntzarako Estatu Agentzia, Ebaluazio eta koordinazioaren azpiatala (lehengo ANEP) edo Unibasq Euskal unibertsitate sistemaren kalitate agentzia edo ezaugarri bertsuko kanpoko agentziaren bat baliatuz.

**(d) Oharra:** Adierazitako puntuazioa lortzeko, euskara zein Espainian ofizialik ez diren hizkuntzen jakite mailaren egiaztatzea aurkeztu behar da, honako hauen arabera:

- C2 egiaztatzea eta baliokideak: 5 puntu.
- C1 egiaztatzea eta baliokideak: 4 puntu.
- B2 egiaztatzea eta baliokideak: 3 puntu.
- Ez da kontuan izango adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk.

Egiaztagiriei dagokienez, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako baliokidetasunak hartuko dira kontuan (297/2010 Dekretua, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzetarako Erreferentziazko Europako Esparru Komuneke mailekin parekatzeko dena).

**(e) oharra:** Irizpide honen ebaluazioa euskara batzordeak egingo du, honako baremo hauek aplikatuta:

- Eskatzailearen merezimenduak: C2, euskarazko GRAL edo/eta MAL. 2 puntu.
- Doktorego tesiaren zuzendari-kideen merezimenduak: C1 edo C2, euskarazko tesien zuzendaritza, euskarazko ekoizpen zientifikoa. 2 puntu.
- Euskarazko ikerketa proiektuaren hizkuntza kalitatea puntu 1.

**(f) Oharra:** Adierazitako puntuazioa lortzeko, legokiokoen hizkuntza maila egiaztatuz aurkeztu behar da, honako hauen arabera:

- C2 egiaztatzea eta baliokideak: 10 puntu.
- C1 egiaztatzea eta baliokideak: 8 puntu.
- B2 egiaztatzea eta baliokideak: 5 puntu.
- B1 egiaztatzea eta baliokideak: 3 puntu.
- Ez da kontuan izango adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk.

Egiaztagiriei dagokienez, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako baliokidetasunak hartuko dira kontuan (297/2010 Dekretua, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzetarako Erreferentziazko Europako Esparru Komuneke mailekin parekatzeko dena).

#### 7.4. Batez besteko nota normalizatzeko erabilitako formulak.

**Eskatzailearen\_NK:** Eskatzailearen espediente akademikoaren normalizazio koefizientea.

**Eskatzailearen\_BatezBestekoa:** Eskaeran adierazitako espediente akademikoaren batez besteko nota haztatua.

**Titulazioaren\_BatezBestekoa:** Eskaerako titulazioaren espediente akademikoetako batez besteko nota haztatuen batez bestekoa.

**Gutx\_NK:** Titulazio guztietarako gutxieneko normalizazio koefizientea.

**Geh\_NK:** Titulazio guztietarako gehieneko normalizazio koefizientea.

**Titulazioko\_DesbEstand:** Eskaerako titulazioaren azken urteetako espediente akademikoetako batez besteko nota haztatuen desbideratze estandarra.

**Eskatzailearen\_NotaNormalizatua:** 7.1 eta 7.2 oinarrietan ezarri diren gainerako irizpideetan jasotako puntuazioei gehitutako normalizazioaren ondoriozko emaitza, puntuazio orokorra lortzeko (bi hamartarretan biribildua).

**NK\_eskatzailea =**

$$(BatezBestekoNota\_eskatzailea \times 10) - (BatezBestekoNota\_titulazioa \times 10)$$

---


$$\text{DesbEstandarra\_titulazioa}$$

**Nota Normalizatua\_ eskatzailea =**

$$50 \times \frac{(NK\_eskatzailea) - (NK\_gutx)}{(NK\_geh) - (NK\_gutx)}$$

Ondoren, titulazio bakoitzeko normalizatutako puntuazio guztiak zerrenda bakar batean bilduko dira, handienetik txikienera ordenatuta.

Titulazio bat baino gehiago egin badituzte, 3.1.a oinarrian ezarritako denbora baldintza betetzen duena edo proposatzen den ikerketa proiektuaren gaiarekin erlaziorik estuena duena erabiliko da normalizaziorako.

## **8. oinarria. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA BALIOESPENA**

### **8.1. Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda**

Eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren, IAEn IGZk aurkeztutako eskariak aztertuko ditu. Azterketa hau amaitu eta gero, IAE-k bere webgunean emango du argitara onartu diren eta bazterrean utzi diren eskarien zerrenda, balioespen fasera iraganen direnak.

### **8.2. Okerren zuzenketa**

Eskaerak aurkezteko epean zehar emandako dokumentazioa osoa ez balitz edo zuzen litezkeen erroreak edukiko balitu, IAEk eskatuko dio eskatzaileari 10 egunen epean osatu eta zuzen dezan.

Eskatzaileak ezin izango du ez hobetu ez ordezkatu lehenago aurkeztutako dokumentazioa eta eskaerak ezin izango dira inola ere berriro egin. IAEk eskatu ez duen dokumentaziorik ere ezin izango da aurkeztu.

Okerren zuzenketak aurkeztu beharko dira 6. oinarrian deskribatutako bitartekoak erabilita.

### **8.3. Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda**

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak argitaratuko dira. Behar den epean eta eran akatsak zuzendu ez dituztenek eskaria bertan behera utzi dutela ulertuko da.

### **8.4. Ebaluazio fasea**

7. oinarrian deskribatutako ebaluazio irizpideen balorazioa bertan atal bakoitzerako deskribatutakoaren arabera egingo da. Tramite hau bi hilabetetan luzatuko da.

Egindako ebaluazio txostenak IGBBri bidaliko zaizkio; hark dagokion esleipen proposamena aurkeztuko dio Ikerketaren arloko Errektoreordeari eta errektoreordeak erabakia hartuko, gero argitaratzeko.

Laguntza deialdiaren lau modalitateetako edozeinetan emateko, eskabideak gutxienez 35 puntutako puntuazioa lortu beharko du 7.1 edo 7.2 oinarrietan ezarritako irizpideen baturan.

Eskatzailearen batzuen berdinketa gertatuz gero azken puntuazioan, honako irizpide hauen arabera ordenatuko dira eskariak, hurrenez hurren, berdinketa hautsi arte:

- a. espediente akademikoaren batez besteko nota haztaturik altuena lukeen eskaria lehenetsiko da (1. irizpidea).
- b. Lehenetsiko da arrakasta tasarik txikiena lukeen zientziaren arloari legokiokeen eskaria (arrakastaren %a eskariko, arlo bakoitzean).
- c. Lehenetsi egingo da 2. irizpidean puntuaziorik altuagoa lortu duen eskaria.

### **8.5. Behin-behineko ebazpena**

IAEk behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du, bere webgunean argitaratuko dena, eskatzaile guztiak lortutako behin-behineko puntuazioa adieraziz.

Hautagaiak eskariaren ebaluazio txostena eskatu ahal izango dute [igz.pif-eskaerak@ehu.eus](mailto:igz.pif-eskaerak@ehu.eus) helbide elektronikora bidalitako mezuaren bidez.

Interesdunek 10 egun baliiodunen epea izango dute egoki leritzeketen alegazioak aurkezteko. Aipatu epean alegaziorik edo ukorik jaso ezean, proposamena onartutzat joko da eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da.

## 8.6. Behin betiko Ebazpena

Epea hau iraganik, IAEk aurkeztutako alegazioak helaraziko dizkio IGBBri, bertan azter daitezen eta, ondorioz, behin betiko ebazpena egiteko proposamena helaraziko dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari.

Kontratazioa emateko edo ukatzeko behin betiko ebazpena IAEn webgunean argitaratuko da, eta argitalpen horrek interesdunei jakinarazteko balioko du.

## 8.7. Behin betiko erabakiaren aurkako errekurtsioak

Behin betiko ebazpenak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere aldi berean erabilia:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtsio hori jarriz gero, eta errekurtsio jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsioa isiltasun negatiboagatik ezetsi dela ulertuko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsioa ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteren epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

## 9. oinarria. KONTRATUA FORMALIZATZEA

9.1. Kontratuak formalizatu baino lehen, kontratazioen adjudikatarioek laguntza lortzeko alegatu dituzten betebeharrak eta merezimenduen egiazkotasuna agertu beharko dute. Egiaztatu ezin balute, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak laguntza ukatzeko ebazpena emango du.

Dokumentazio hau agertzeko epea eman eta ezetsitako laguntzen behin betiko ebazpenean adieraziko da.

Kontratuen adjudikaziodunek dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte IAEn:

- a. Eskeraren adierazitako doktorego programan matrikulatu izanaren ordainagiria edo, III. eta IV. modalitateetarako, programena.
- b. Deialdi honen adjudikaziodun gisa dituzten betekizunak onartzeko dokumentua, tesiaren zuzendari kideek eta adskripzioari dagokion sail, institutu zein ikastegiko zuzendariak ontzat emana.
- c. Identifikazio fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituenak.
- d. Zinpeko aitortzea, non interesatuak adierazten duen inoiz kontraturik egon ez dela Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 14/2011 Legeko 21. artikuluan aurreikusitako doktorego aurreko kontratu modalitatearen bidez, eta, egon baldin bada, zenbat egunez.
- e. Lanean hasi izanaren ziurtagiria.
- f. Kasuan kasuko ikerketako etika batzordearen aldeko txostena, ikerketa proiektuaren gaiak hala eskatzen duenean.

**Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, kontratuaren formalizatzeari uko egiten zaiola ulertuko da.**

9.2. Kontratuak noiz formalizatuko diren eta, sail, institutu zein ikastegian noiz lanean hasteko eguna, deialdia ebazten duen behin betiko ebazpenean adieraziko da.

Esleipenduna ez balitz agertuko adierazitako egunean kontratua sinatzeko ekitaldira edo sail, institutu edo gunean lanean hasiko, kontratuari uko egiten diola ulertuko da.

9.3. Salbuespenezko eta behar bezala justifikatutako kasuetan, Ikerkuntzarako errektoreordeak baimena eman dezake hasteko eguna gehienez hiru hilabetez atzeratzeko. Atzeratzeko eskaria 9.1 oinarrian ezarritako epearen barruan aurkeztuko da.

9.4. Eskariak ebaluatzean kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, alta emateko tramitea eten egingo da eta, hala dagokionean, kontratua deuseztatu egingo da.

9.5. Kontratua sinatu eta sei hilabetetara, Ikerkuntza gestiorako zuzendaritzak (IGZ) ofizios egiaztatuko du onuraduna eskarian adierazitako doktorego programan edo programetan, III eta IV. modalitateetarako, matrikulatuta dagoela, bai eta tesiaren zuzendari-kideak azkenik bertan adierazitakoa direla ere. IAEk ofizios eta 6 hileroko maiztasunaz baldintza hau betetzen duen ikuskatuko du, kontratuak dirauen bitartean. Bi betebeharrak hauetako bat bete ezean, kontratua atzera botatzeko arrazoitzat hartuko da.

## **10. oinarria. KONTRATATUTAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK**

10.1. Prestakuntza bidean dauden ikertzaileek eskubidea dute txertatzen direneko sail, institutu edo guneen laguntza eta sostengua jasotzeko, hauen baliabideen neurrian, beren ikasketak eta ikerketak egiteko.

10.2. Kontratutako langileek Unibertsitateko Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrek (SGIker) eta dagokien ikertaldearen azpiegiturak eta materiala erabiltzeko eskubidea izango dute. Era berean, eskubidea izango dute sailaren ikerketa baliabideak erabiltzeko, eta ikertaldeak bere ikerlana egiten duen ikastegiko baliabideak ere, horretarako ezarrita dauden baldintzei men eginez betiere.

10.3. Kontratutakoak **zeregin osagarriak egin ahal izango ditu** proposatutako ikerketa jarduerarekin erlacionatutako **irakaskuntza lanetan** (gehenez 180 ordu ikasturtean), zeinek bere tesi zuzendariarekin adostasuna lortu ondoren eta UPV/EHUren zerbitzura dauden langileentzako bateraezintasunei buruzko indarreko arautegiari lotuta, irakasgai ardurarik izan edo ikasleen ebaluazio edo probarik egin ezin dutelarik.

Irakaskuntza zereginetan laguntzeko baimen eskaera irakaskuntza lankidetzat hasteko aurreikusitako eguna baino, gutxienez, hamabost egun lehenago egingo da ikerkuntza gestionatzeko zuzendaritzaren aurrean eta saileko zuzendariak, doktorego tesiaren zuzendariak eta kontratatutako pertsonak sinatu beharko dute.

## **11. oinarria. KONTRATATUTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK**

11.1. Eskabidean adierazitako doktorego programan urteko matrikula formalizatzea, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak ezarritako epeen barruan, eskabidean adierazitako zuzendari berekin, salbu eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzari jakinarazitako eta beronek baimendutako ezinbesteko egoeretan.

11.2. Zeinek bere lana egin adskribitutako sailean, institutuan edo gunean.

11.3. Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte IGZ-k edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

11.4. Honako deialdi honen aipamena egin beharko dute, kontratuak dirauen bitartean egingo liratekeen ikerketa jardueretatik ondorioztatutako liratekeen argitalpen eta bestelako emaitzetan.

11.5. Eskumena duten organoek bere ikerketa jardunaren inguruan egin ditzaketen egiaztapen, finantza kontrol eta segimendu jarduerak onartzea eta horretarako eskatutako informazio guztia ematea.

11.6. UPV/EHUren titulartasuna aitortzea, prestatzen ari diren ikertzaileen ikerketa-lanaren ondorioz sor litezkeen argitalpen, patente, modelo baliagarri eta jabetza intelektualeko objektuen nahiz lanen inguruan, jabetza industrial edo intelektualaren helburuko horien asmatzaile gisa egin beharreko aitopenari betiere eutsiz.

11.7. Ikertzailearen Gutun Europarrean aurreikusitako betebeharrak orokorrak eta espezifikoak betetzea.

11.8. Doktoregoa lortuko dute legozkiekeen doktorego arautegietan aurreikusitako epeen barruan.

## **12. oinarria. TESI ZUZENDARIKIDEEN BETEBEHARRAK**

12.1. Tesi zuzendarikideen betebeharrak izanen da doktoregaiei emandako laguntza zehaztutako helburuaren betetzeko baliatzen dela bermatzea, laguntza indarrean den bitartean tesia zuzendarikide gisa arituko direlarik. Era berean, IAEri jakinarazi beharko diote tesiaren defentsa eragotziko ahal duen edozein baldintzaren berri.

12.2. IAE-ri jakinaraziko diote deialdi honen bidez kontratatu den pertsonalak doktore gradua lortu duela.

12.3. Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte IAE-k edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

### 13. oinarria. BATERAEZINTASUNEN ERREGIMENA

Deialdi honen babesean formalizatutako kontratua ez da bateragarria izango beste edozein kontratuekin, Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 legearen 19. artikuluan aipatzen diren jarduerak eta, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoaren 83. artikuluan aipatzen diren erakunde edo pertsonekin egindako lankidetzak kontratuak izan ezik. Nolanahi ere, jarduera horretan parte hartzea bateragarria izango da soilik, baldin eta ez badio eragiten doktorego aurreko kontratuaren prestakuntza alderdiari, haren helburuak lotura zuzena badu doktorego tesiarekin, eta tesi zuzendariak baimentzen badu, zeinak, aldi berean, parte hartu beharko baitu.

### 14. oinarria. UKO EGITEAK, BAJAK ETA KONTRATUAREN AMAIERA

Deialdi honen bidez kontratatutako pertsonalak egin litzakeen uko, baja eta gainerako gorabeheren berri eman beharko dio UPV/EHUren IAeri, tesi zuzendariaren ontzat emana, gertatu eta hiru lanegunetara, kasuan kasu justifikatzeko beharko litzatekeen agiriekin batera. Eskaria [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus) helbide elektronikora igorritako idazkiaren bidez egingo da, kasuan kasu, eskatu eta aurkeztu beharreko dokumentazio justifikagarriarekin batera.

**Kontratatutako ikertzaileak ukoa, baja edo gorabehera jakinarazi beharko dio Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzari.**

### 15. oinarria. JARRAIPENA

15.1. Deialdi honekin bat etorrira kontratatutako pertsonalak egindako lanaren jarraipen zientifiko eta teknikoa IGZri dagokio, horretarako jarraitu beharreko prozedurak ezarriko dituelarik. Hortaz, egoki leritzekeen organoak, batzordeak eta pertsonal aditua izendatu ahal izango ditu eta egoki leritzokeen informazio osagarria eskatu, kontratua behar bezala burutu den egiaztatze beharko liratekeen jarraipen eta egiaztatze egitateak buru ditzaten.

15.2. Oro har, dokumentu horiek deialdi honetarako argitaratzen diren ereduaren arabera beteko dira eta kontratuak indarrean ematen dituen urteetako bakoitzaren ondorengo lehenengo hilabetearen aurkeztuko zaizkio IAeri.

15.3. Kontratua amaitu eta hilabete epean, amaierako txosten bat aurkeztuko da Ikerketaren arloko Errektoreordetzan, kontratuaren indarraldian zer jarduera egin diren ezagutarazteko.

### 16. oinarria. KONTRATUEN ETETEA

Lan kontratua ondorengo arrazoietakoa batengatik etengo da:

- a. Kontratuak berak uko egitea.
- b. Kontratuaren indarraldia amaitzea.
- c. Eskaeran adierazitako doktorego programan matrikulatutako pertsonaren izaera galtzea.
- d. Laguntza emateko aintzat hartutako betebeharrak bete ez edo baldintzak aldatzea, barne izanik doktorego programako matrikula edo eskaeran adierazitakoak ez diren beste tesi zuzendarikideekin aritzea, IAeren baimen espresurik gabe.
- e. Tesi zuzendarikideek eta doktorego programaren arduradunak hala eskatuta, tesi zuzendarikideek eta doktorego programaren arduradunak abalaturako txostenak arrazoituz gero.
- f. Gerora sortutako bateraezintasunen batengatik.
- g. Laguntzarako aurrekontu krediturik ez dagoelako.
- h. Doktore titulua eskuratzea. Doktore titulua lortzeak laguntzaren helburua baliogabetzea eragingo du eta, ondorioz, laguntza eskubideak bertan behera amaitzea. Horrelakoetan, laguntzaren amaieraren ondorio administratibo eta ekonomikoak doktorego tesiaren defentsa egin eta hurrengo egunean hasiko dira.

**17. OINARRIA. IKERKETA JARDUERETAN BETE BEHARREKO PRINTZIOIAK**

17.1. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan gizakiak, gizakien lagin biologikoak eta/edo datu pertsonalak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Aitorpenetan jasotako printzipio etikoak errespetatzea (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokio, 2004).
- Indarreko legeria bete: 14/2007 Legea, biomedikuntzako ikerketei buruzkoa; 1716/2011 ED, biobankuei buruzkoa; 15/1999 Legea, pazientearen autonomiari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak Bermatzeari buruzkoa, eta 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena. Bai eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko UPV/EHUko Arautegia ere.
- Kasuan kasuko Ikerketako Batzorde Etikoaren (AEIBE) aurreko eta nahitaezko aldeko txostena lortzea, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoan (EHAA, 32 zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.

17.2. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimintatu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Nazioartean sustatutako ordezte, murrizte eta fintze irizpideak errespetatu.
- Animaliekin ikertzearen arloko indarreko araudia bete (53/2013 ED).
- Animaliekiko Esperimentaziorako Ikerketako Batzorde Etikoaren (AEIBE) aurreko eta nahitaezko aldeko txostena lortzea, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoan (EHAA, 32 zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.
- Agintari eskudunaren baimena agertu (foru diputazioen abeltzaintza saila).

17.3. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak eta/edo genetikoki eraldatutako organismoak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Giza osasuna eta ingurumena babestearen inguruko prebentzio, zuhertasun eta informazio printzipio etikoak errespetatu.
- Arlo horretako indarreko araudia bete (31/1995 Legea, laneko arriskuak prebenitzeari buruzkoa; 664/1997 ED, langileak eragile biologikoekin lan egitearen arriskuetatik babesteari buruzkoa; 665/1997, langileak eragile kartzinogenoekin lan egitearen arriskuetatik babesteari buruzkoa; 9/2003 Legea eta 178/2004 ED, genetikoki eraldatutako organismoen erabilera konfinatua, borondatezko askapena eta merkaturatzeari buruzkoa).
- Agente Biologikoekin eta Genetikoki Eraldatutako Organismoekin eginiko ikerketetarako Etika Batzordearen (CEIAB) aginduzko aldeko txostena lortu, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoak (EHAA, 32. zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.

17.4. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan enbrioi zelula amekin edo haietatik eratorritako zelula lerroekin ikerketak egiteko beharrezkoa izango da hauek betetzea: 45/2003 Legea eta hari dagokion 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioietatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituena, bai eta 09/2014 ED ere, uztailearen 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, gordetzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituena.

Horrez gain, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan behar da: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa; honen bidez, alde batetik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, baita biobanku horiek jarduteko oinarritzko eskakizunak ere; bestetik, giza lagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, eta, azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira (2011ko abenduaren 2koa, ostirala, EBO; 290. zk.). (EBO, 290. zk., 2011ko abenduaren 2koa, ostirala).

17.5. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ez eta, zehatzago, armak egiteko eta/edo merkaturatzeko enprekin zuzenean edo zeharka lan egin ere.

### **AZKEN XEDAPENETATIK LEHENA**

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsua jarri ahal izango da ebazpena argitaratu eta hilabetearen epean Ikerketaren arloko Errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikuluaekin bat etorrita.

### **AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA**

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioa, 2022.eko maiatzaren 30ean.

Inmaculada Arostegui Madariaga

Ikerketaren Arloko Errektoreordea  
Vicerrectora de Investigación



## **I. ERANSKINA**

### **GIHen KATALOGOA**

Eskarian adieraziko da, Agenda 2030en Garapen Iraunkorreko zein helbururekin (GIH) bat datorren aurkezten den proiektua (gehienez 3 aukeratu, planteatzen den proiektuarekiko harreman mailaren arabera ordenatuta). Honako hauek dira GIHak:

1. GIH. POBREZIA DESAGERTZEA
2. GIH. GOSERIK EZ IZATEA
3. GIH. OSASUNA ETA ONGIZATEA
4. GIH. KALITATE ONEKO HEZKUNTZA
5. GIH. GENERO BERDINTASUNA
6. GIH. EDATEKO URA ETA SANEAMENDUA
7. GIH. ENERGIA ESKURAGARRI ETA EZ KUTSATZAILEA
8. GIH. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA
9. GIH. INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA
10. GIH. DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
11. GIH. HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK
12. GIH. EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK
13. GIH. KLIMAREN ALDEKO EKINTZA
14. GIH. URETAKO BIZITZA
15. GIH. LEHORREKO BIZITZA
16. GIH. BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK
17. GIH. ITUNAK HELBURUAK LORTZEKO
- 17+1. GIH.: HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA

Eskarian labur deskribatuko dira (gehienez 500 karaktere) aurkezten den ikerketa proiektuak eta bere helburuek hautatutako eta lehenetsitako hiru GIHeekin duten lotura.

**II. ERANSKINA****TITULAZIOEN BATEZBESTEKO NOTAK**

TITULAZIOA	Titulazioaren batezbestekoa	Titulazioaren desb. estandarra	Erabaltako espedienteen kop.
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitza	75,49	6,32	135
Fisikako eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitza	79,48	7,99	53
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	68,28	6,88	1604
Gizarte Antropologiako Gradua	77,23	6,54	124
Arkitektura Teknikoko Gradua	66,23	5,33	99
Arteko Gradua	75,02	7,03	473
Biologiako Gradua	72,19	7,20	324
Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua	80,20	7,12	195
Bioteknologiako Gradua	75,87	6,87	144
Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Gradua	71,70	8,14	230
Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua	68,60	5,72	123
Ingurumen Zientzietako Gradua	70,86	5,15	150
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua	74,04	4,86	462
Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua	72,71	5,16	320
Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Gradua	72,04	5,93	98
Sorkuntza eta Diseinuko Gradua	74,67	5,93	315
Kriminologiako Gradua	76,22	5,58	187
Zuzenbideko Gradua	69,79	7,49	801
Ekonomiako Gradua	67,96	7,21	252
Haur Hezkuntzako Gradua	78,81	5,18	1255
Lehenengo Hezkuntzako Gradua	77,31	5,92	1880
Gizarte Hezkuntzako Gradua	78,10	5,42	694
Erizaintzako Gradua	80,53	4,46	1421
Ingeles Ikasketetako Gradua	72,09	7,23	330
Euskal Ikasketetako Gradua	71,20	8,81	169
Farmaziako Gradua	70,37	6,07	459
Filologiako Gradua	73,83	7,83	253
Filosofiako gradua	77,68	7,83	118
Finantza eta Aseguruetako gradua	63,61	4,90	47
Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Gradua	65,68	6,51	70
Fisikako Gradua	69,58	6,87	213
Fisioterapiako Gradua	80,45	5,23	219
Arkitekturaren Oinarrietako Gradua	67,42	5,41	344
Geografiako eta Lurralde Antolakuntzako Gradua	69,40	6,34	79
Geologiako Gradua	64,61	5,90	75
Negoioen Kudeaketako Gradua	66,71	6,16	445

UPV/EHU*n* IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2022)

Historiako Gradua	72,19	7,87	318
Artearen Historiako Gradua	74,30	9,04	136
Ingurumen Ingeniaritzako Gradua	65,80	4,31	43
Ingeniaritza Zibileko Gradua	66,27	5,48	238
Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Gradua	72,54	6,66	218
Meatzaritza eta Energia Teknogiaren Ingeniaritzako Gradua	64,17	4,21	75
Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	62,47	5,24	175
Ingeniaritza Elektronikoko Gradua	66,21	5,54	80
Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	66,52	6,56	663
Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako Gradua	77,03	4,96	28
Prozesu eta Produktuen Berrikuntzako Ingeniaritza Gradua	65,17	5,99	34
Industria Antolakuntzako Ingeniaritzako Gradua	69,15	4,65	119
Telekomunikazio Teknogiaren Ingeniaritzako Gradua	67,83	4,71	123
Industria Teknogiaren Ingeniaritzako Gradua	67,39	5,48	256
Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	67,12	6,48	754
Kudeaketarako Informatika eta Informazio Sistemak Ingeniaritza Sistema	71,86	8,45	349
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	68,58	6,12	226
Ingeniaritza Kimikoko Gradua	64,62	5,40	899
Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua	67,94	6,19	192
Itsasketako Gradua	64,67	6,40	50
Marketineko Gradua	69,36	4,82	61
Matematikako Gradua	68,37	6,02	140
Medikuntzako Gradua	69,55	8,25	230
Nautika eta Itsas Garraioko Gradu	79,48	5,85	1170
Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua	68,20	6,64	58
Odontologiako Gradua	70,91	5,35	187
Pedagogiako Gradua	76,32	6,73	148
Kazetaritzako Gradua	79,20	5,59	189
Psikologiako Gradua	70,09	5,94	562
Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua	75,10	5,80	877
Kimikako Gradua	69,88	5,41	435
Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua	69,78	7,69	481
Soziologiako Gradua	69,92	6,82	358
Gizarte Langintzako gradua	70,97	7,31	156
Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua	72,68	6,14	485
Industria ingeniaritza	78,96	6,44	230
Publizitate eta Harreman Publikoetan lizentziaduna			1
<b>Guztira, orokorrean</b>	<b>72,68</b>	<b>7,94</b>	<b>24904</b>
UPV/EHU <i>n</i> BALIOKIDERIK EZ	<b>72,68</b>	<b>7,94</b>	

**Oharra:** Batez besteko nota eta desbideratze estandarra kalkulatzeko behar adina espediente akademiko ez duten titulazioetan, 7.2 oinarriko a) oharreko bigarren paragrafoan adierazitakoaren arabera, "UPV/EHUn baliokiderik ez" lerroan adierazitako balioak erabiliko dira, kontuan hartuta oinarrizko ikastaroetan metatutako espediente kopurua oso txikia dela.